



Iturria: *Haritxabaletaren bizia / Don Juan eta bere adixkidiak*, Jean Baptiste Constantin (Patri Urkizuren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1997.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/C/ConstantinHaritxaba.htm>

HARITXABALET

Jean Baptiste Constantin

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**Aiphamen ilabur bat
Haritxabalet
Jaun aphezaren gañen
J. B. Constantin
Santa Graztarrak eginik**

Eskualduna, 1376. z., 1926-IV-16.

Ziberoan Basaburuko etxalte hobenetarik bat izan da sekulaz geroz Atharratze Haritxabaleta.

1760ian sorthu zen etxe hartan haur bat batheiarrian Dominika deiturik izan zena.

Haur hura *erreboluzione handiaren* uhulgien gatik aphezturen da eta apheza, Erreboluzioneko odol ixurten gatik, gogorki egonen da aphez.

*Dominika Haritxabalet*ek khorpitzezazkar eta buruz hun izateko abioa bazian.

Bost, sei urthetaktatz ageri zen zer entreinatako eta zer jitetako gizona izan zaitekian.

Baratxu gaitz zen, bena etzian gaxtokeriarik. Ordunkoz txasko egiteko jaidura bazian eta jaidura hura jarraiki zeron denbora orotan.

Aitak eta amak, ezaguturik haurraren jite ederra eta, bere ezin egona gatik, othoitzialako zian sua, hitzartu zien behar ziela herriko jaun erretora mintzatu eta behar ziela ikhusi harekin Dominikaetarik ez othe zinez aphez bat egin behar.

Jaun erretorak ontsa hartu zian Haritxabaletako nausi-etxekanderen xedia.

Eta, hantik bertan hasi zen Dominikari lati letzione emaiten.

Ordu beretik mundiak erran zian: *Dominika Haritxabaletakoa aphez gei da.*



Nor nahi etzen aphez gei hun hartzen; ihur etzen abiatzen latiaren ikhastera, ordenala heltzeko elhian, non etzen ezaguturik barnetik baziala aphezgoalako ekhardura osoa.

Eta orai bezala arauz? erranen deitade, ozen ozena, hantik eta hebentik.

Bai, bai, orai bezala.

Xoilki, denbora batez, jente gora eta aberatsean, aphezak batzutan egiten ziren nula nahixe, bokazionia edo barnetikako deia jinik ez bazen jinekozelakoan.

Herroka aphaletan aldiz, populu xehian, ikhare batekin baizik etzen uzten haur bat Eliza gizon sartzeko bidia lotzera, beldurrez etzuziala benturaz Jinkoaren zerbutxialako deia behar zen bezain egiazko eta azkar.

Dominika Haritxabalet etzen ezbaiekoetarik: *Nabi niz izan aphez eta aphez saintu*, erran zian, lehen egunetik.

Hatsarrian hiriko jaun erreterak eraits-erazten zian Dominika, astian berrian, letzioniarean hartzera.

Frantzesik etzakialakoz, gizon gaztia nekez lotzen zen lati gramera-ri; bena jaun erreterak ezagutzen zian thai gabeko zela hauraren ikhasi nahia, eta erraiten zian: Behin abiatuz geroz joanen da sua bazka idorrian bezala.

Egun batez, Dominika letzioniarean hartzen ibilirik, etxerat jinik zen doi doa.

Ama, su eder baten aitzinian, talo edo pastex egitera abian zagon.

Erran zeron semiari:

—Ikasten duka hanitx Dominika? Eia badakianez latirik? Motthikoak ihardetsi zian amari:

Rosa ikhasi dut behin;

Rosae-k eman deit zer egin;

Rosis igaranik nago;

Rosae-tan ez gibelago;

Rosarum joan da aitzina;

Rosis biharko latina.

Besoak altxaturik, ama hasi zen: Dominika guriak badaki jadanik latia *paterra* bezala.

Izanen da irakurzaletan sinhetsiren ez dienik osoki Dominika aphez geiak, zian adinian, hitzez hitz ihardetsi ahal ukhen ziala amari erran dugun moldian.

Ezar dezagun *Rosa, Rosae, Rosis, Rosae, Rosarum, Rosis* zutuzkiala eman herrokan, eta beste uskara buztanak lati hitz horier norbaitek eretxeki dutiala.

Eta ez haatik, ihurk ez dutu eretxeki, bai izaritanezari.

* * *

Joan ziren urthiak; lanak eman zian beria. Dominika Haritxabaletako seme aphez geiak sakolan zian lati gramera. Horrek erran nahi beitu hari nausiturik zela, hura ikhasirik ziala *paterra* bezain ontsa.

Atharratzeko jaun erreterak, hatsarrian zombait phitzaldi builtazerran ukhen zeron Dominikari:

—Buria Erretzuko arroka bezain gogor othe duka?

Haritxabaletak ihardesten umen zian gogoz jaun erreterari:

—Ene buria ez da Erretzuko arroka bezain gogor eta ene bokazionia hanitxez hura beno gogorrigo da.

* * *

Jin zen seminarioan sartzeko thenoria. Dominika joan zen gogo hunez Oloruko seminarioalat.

Langile handi eta hartze hun zelakoz, denbora orotan, jakitatez bere lagunen aitzinian egon zen.

Oloruko seminarioan aitzindari eta eskolierak estimu handitan etxekiten zien Haritxabalet. Bena aphez geiek, estimiaz kanpo, balin bazen lagun alagera eta bihotz gozoko haren etxekimentu behex bat, aitzindariak etzutien ontsa hartzen Dominikaren txasko eta utzuliak oro.

Eta aitzindarien beldurra zen aphezgei uduriz haituko hura etzela sekula ordenala heltu ahal izanen.

Bakhotxak ikhusiren du eia Haritxabaletak zombait elhe eta utzuli arhinen gatik, gaxki harturik izatia merexitu diane egundano.

Huna lehen bakantzak.

Atharraztarrek etzien ikhusi ordialartino Haritxabalet sotenarekilan. Zer muthikua! Zer gizona! Zer aphez ederra! Barnetxek erran zian: *Seminarioko aphez gei Biarnesek ez ahal deroie horri erbia sudurpian igaraiten!*

Haritxabalet haatik azkar eta odol bero bezain bakezko eta ororen adiskide zen.

Etxera heltu zelarik, amak besarkatu zian eta potez abantzu jan.



Gero eman zeron edatera. Godaleta etzen txipi, ez handi ere; laborari godalet bat.

Hustu bezain sarri, krakez, Dominikak eror-erazi zian godaleta sote-na mahankalat eta eskuz lothu zen zuntzurari, uduri zerbaitek ithotzen ziala. Ama hasi zen oihuz: *Zer duk?*

Haritxabalet egin zian: *Densere, densere orai: godalet txar bura erori zait abualat eta gaintitu dut.*

* * *

Ama harritu zen. Egun berian erosi zian Atharratze Martxantenan, barnez gathulu tarro baten heineko godaleta, seme jaunarentako.

Dominikak etzian besterik galtheigten.

Semenarioan Haritxabalet khuntatu zian lagun er amari egin txaskua.

Karkazaz hant-erazizutian aphezgeiak. Aitzindariak aldiz ediren zien hor ezagutze eskaz bat amaren eretzeko.

Haritxabalet etzen amaz trufatu nahi izan huilnikere, amak erri egiten zian ezagutu balu semiaren utzulia.

* * *

Haritxabalet handi eta azkar zela badakigu. Ez da sinhesteko lagunek beno haboroxo jan behar ziala. Eta denbora haietan seminarioko bizigarria mehe eta xuhur zen

Norbaitekin hitzarturik noiztarik noiz hiritik hel-erazten zeroien jateko amiñi bat.

Bazakian noiz zen anhua eguna. Gaian egurukiten zian thenoria. Leihotik behera igorten zian soka hari estekatzen zien zaretto bat, eta bertan zaria sartzen zen seminarioan.

Saila ontsa zoan.

Bena zer egiten ahal da luzaz aizuek jakin gabe?

Seminarioko aitzindarien berrietaratu zen Haritxabalet egiten zian lana.

Superiurrak begia etzekiten zeron uskaldun handiari.

Arrats batez, zerbait zotuku nabariturik, jarri zen haren alde peko kanberan. Eta zaria abiatu zelarik gora buruz, leihoa zabal-eta hatzeman zian soka. Soka muztu zian eta zaria bere ganat bildu.

Horra Haritxabalet seminariotik kanpo ezaririk izateko bidian.

Biharamunian Superiurrak bildu zian kontseilia eta deitu zian Haritxabalet haren aitziniala.

Haritxabalet sartu zelarik kontseilia bildurik zen barne hartara, hasi zen hasperenez, iharrausiz eta ezin egon batekin bezala zagon, ulhun eta erreus

—Zer dugu Haritxabalet?, erran zeron Superiurrak haizu etzen erk-haitza batekin.

Ez da haizu ihurtzaz trufatzia; ez da trufatu behar bera beno aphi-lago batez ere. Bestalde Haritxabalet ogendun ekarririk zen, bena ez orano ezaguturik egiazki ogendunzela.

Haritxabalet ihardetsi zian Superiurrari:

—Barda egin dut amets bat eta amets harek zainetan ezari deitadan izialdura etzait orano ere igaraiten. Beste mundian nintzan zeluko loriaz gozatzen ari. Arima gaxo bat hasi zait oihuz Purgatoriotik: *Salba nezaizu! Salba nezaizu!* Igorri derot soka bat. Lothu da sokari eta zelietarat igarantzen nian. Bena ainguru bat jelki da oldarrian bortha batetarik, hatzeman du soka, bildu arima bere ganat eta lotsa niz urthiki diala ifernalat.

Superiurra eta haren lagunak egon ziren algarri so aphur bat.

Iklusirik aphez gei gaizoak etziala egin, ororen burian, jateko buxi-baten, erran ahal daiteke ogi azal baten kontrebanda baizik; orhaturik Haritxabaleten entelijentziako gizonak bekhan zirela, utzi zien bakian estudianta.

Haritxabalet etzian gezurra maite.

Erraiten zian: *Gezurra bekhatu da eta gezurrak txipitzen eta ezdeusten du gizona. Erakhar ditzaizke ere nabigabe, destorbu eta itxuskeriak.*

Bena bada haatik gezur eta gezur.

Xuxenka edo unguruz norbaiti ogen egiten edo egiten ahal dian gezurra ez da haizu.

Libertitzeko, ihur demendrenik kolpatu gabe erraiten den gezurra ez da arauz bekhatu handia. Bere buriaren edo adiskide baten urhats gaxto batetarik idekitek erraiten den gezurra, gezur harek ez dialarik besterik ihuri ere okherrik egiten, zer heinetan da bekhatu?

Aldi batez Haritxabalet behar ukan zian gezur bat biribilkatu bere buriaren garbitzeko. Aithortzen zian ogen handia ukhen ziala gezurraren erraiteko beharruniala eroriz, bena etzian sendi barneko minik. Kontzentzia bakian ezaririk zian seminariotik jelkhi gabe ere.

Huna zer gerthatu zen: Atheraldi edo promenadatik aphez geiak utzultzen zirelarik, Haritxabalet ardura artia hatzamaiten zian botila bat ardu xuriren eros eta sakolan sartzeko.



Egun batez hatzemanik izan zen: gehien batek ezagutu zian haren utzulia. Etzian ezkapurik. Berak ziuau: *Ala txoria!!! uste ziaia igorten nundie-la berbala abar-zainMaidalena serralat.*

Seminarioanestudiantak sarthu bezain sarri, Superiurra abiatu zen khanberetan ikheraldi baten egitera.

Haritxabaleten bazakian zer egin zian eta zer athekan edireiten zen. Etzen egon ezbaian: zunbait itzikiz edan zian botila ardua eta ezari zian ohe pian botila erdikalaxe beterik... bere huretik.

Erran behar da, denbora haietan, estudiantek etziela gaiatzko untzirik eta jeiki beharrian gerhatzen zenak jua behar ziala, laster edo urhatsian nula ere manhaturik beitzen, zokho ulhunto batetan zen barne hartara.

Superiurra, ungurukaz, heltu zen nuzpait Haritxabaleten khanbera-la. Hasi zen han xokhuen ikhertzen. Bazakian botila barne hartan zela eta haatik etzian edireiten.

Azkenian horra nun ikhusten dian botila ohe pian. Hartzen du eskie-tarat. *Zer da hau?*, galtheigten du. Haritxabaleten ihardesten dero: *Jauna, badakizu ez dugula gaiatzko untzirik; untziaren ordaribotila bat etxekiten dut; goiz huntu ez dut bustu botilaa; orai ikhusten duzu zer den.*

Bai?, egin zian Superiurra, eta ber denboran abiatu zen bere ustez ardu xuria zelako haren urrintatzera. Etzian botilaren sudurrialala huilantu beharrik ukhan. Bertan ezagutu zian Haritxabalet egiaz mintzo zela. Superiurra khexu gaitzian zen haatik. Prozedurak etxekiten zian azkarki ikhusi ziala Haritxabalet botilaren sakolan sartzen, bena kontzentziari minik egin gabe etzirokian besua altxa erraiteko botila betherik zela.

Ez gira argi bilha juanen seminariotik kanpo, erran zian Superiurra, semenarioko gora beherak heben berian behar die xuritu eta bardintu. Haritxabaleten dio zer beharrunetako zian botila. Nihauk ere badakit zer zian botilak barnen. Izan dira beste utzul unguuru, Haritxabal batek baizik ozketan ezar ez liruunik. Agian ez. Gezurra bekhatu da eta bekhatian denaren lekharik ez da semenariuan.

Superiurra borthizki mintzatu zen, bena nulako etzen izanen haren bihotz mina bortxatu izan balitz Haritxabaleten semenariotik kanpo ezar-tera. Maite zian Haritxabalet eta bazian sinheste handiak harek aphezgualako zian ekharduran.

Hortan baratu zen egitekua.

Seminarioko denborak ere igaraiten dira. Luze khausitzen dutie aphez gei haboruek.

Zerentako othe? Ez luke uduri debeiatzeko arterik han badela. Orenak oro harturik dira. Ez da oren herrestakorik.

Bena... zerbait, nun ez da zerbait?

Haritxabalet debeiatu zena seminariuan? Ez ahal; lana zinez maite zian; eta phausu artetan bazakian besten eta bere buriaren liberti-erazten.

Bere txasko txipi eta handi orenen gatik etzian ukhen deus nahigaberik.

Eta orai horraa nun den Haritxabalet ordenala helturik: horraa nun den aphez.

Adinez hogeietahamar urthetara huilanturik da.

Bi asteren burian jaun aphezakupiak izendatu zian Haritxabalet Santa Graziako bikari.

Hartxilon gora zoalarik erran umen zian: *Ala txoria! Errege etzaike jinen ikhustera.* Etzian goguan igaraiten Erregek zer behar zian ikhusi.

1790ian arren, Haritxabalet jua zen bikari Santa Grazirat. D'Esquer zen ordian hanko erretora. D'Esquerrek egin zeron gaihaje hun Haritxabaleti.

Denbora haietan Frantzian baziren zotuku gaitzak; erreboluzioniarren herotsek aranzaten zutien bazterrak. Lege berriak egiten zutien eta oro populiaren hunetan, bena ezagun zen lege egilen artian bazirela gogooan erabbia zienak. Ageri zen zer egunetara zoan Frantzia eta, hartakoz, mundu oro erreus bizi zen.

Goberniak ezari nahi ukhen zutien Elizaa eta Elizako gizonak *Constitution Civile* zelako lege berri baten pian. Lege haren arabera, populiak behar zutian botzez haitatu aphezkupe eta erretorak.

Elizari khendu zeitzoien bere huntarzunak oro, bena Frantziako goberniak behar zutian eman Eliza gizoner huntarzun haien entresak soldata bezala.

Ala txoria!, erranen zian Haritxabaleten, bizi izan balitz egun orano, Erreboluzioneko gizonak oraiko Errepublikakuak beno xuxenago ziren; bazien hoiek beno kontzentzia haboro: hartu zutien Elizaren huntarzunak bena etzien txerkatu aphez gosez arnega-eraztai. soldatak eman zeitzen.

Aita saintiak etzian onetsi *Constitution Civile* zelako lege berria. Aphez zunbait aldiz hari jarri ziren. Egiazki untsa edireiten ziena, ala lotsak erabilten zutian?

Aphezek behar zien zin egin lege hura untsa hartzen ziela. 1791an D'Esquer-ek eta Haritxabaleten egin zien zina, Santa Graziako plazan, bai eta dantzatu *Karmañola* han berian.

D'Esquer zahartuturik zen ordunkoz.



Haritxabaleten egiten zian D'Esquerren dantzatzeko ihikina; gizagaxo xaharra hatsa juanik ungurukutzen zen ahal bezala, sotena hegalak herrestan.

Lege berriaren arabera aphez bezala ezari zien Haritxabalet Ligin erretor. Hantik bertan igorri zien Larrainerat.

Larrainen umen zian Haritxabaleten khantatu hainbestetan aiphatu-rik izan den prefaziua.

Axuri denbora igarantzerik zen; ahuiniak hasirik. Igante hartan haatik, ez axuririk ez ahuinik, ihurk etzian ekharri apheztegiat. Haritxabaleten, bethi bezala bazutian khumitak. Eta Mañaña gellhariak etzian deus handirik bildu ez adelatu, sasu hartan bazkari geiak ez beitzian hutsik egiten jitia.

Erretora juan zen elizalat, erraiten zialarik Mañañari:

*Jinkuak zer bait egiten din
Eta hik ere harekin.*

Meza hasirik zen. Horra nun laborari batek ekhartan dian ahuine bat ederrik. Mañañak nahi ukhen zukian Haritxabaleten jakinerazi baziala arakeia, arakei gazte eta gizona.

Larrainen ordunko aphez etxia elizari huilana huilana zen eta leiho batetarik ikhusi zaitekian altharia.

Ez dakigu orai hala denez.

Mañañak hartu zian ahukia besapian eta jarri zen leihuan altharialat so. Erretorak, utzuli zelarik populiari buruz, *Orate fratres*, erraiteko ikhusi zian Mañaña kheinuz ahuiniaren erakasten ari zerola.

Ordian Haritxabaleten prefazio hau khantatu zian:

Mañaña, o Mañaña,
Badugia ahuina!
Ikhusi dinat, kheinu egitian,
Bat baduinala besapian.
Abia hadi bertan prestatzera,
Gerrenian erdia ezartera.
Beste erdia ezar-an saltsan,
Ederki jan dezagun bazkaitan.

Zer erranen die irakurzalek prefaziotto horrez? Haboruek erri egiten die, eta behar ere. Ez deia izanen bat edo beste sinhetsiren dianik Haritxabaleten hori khantatu diala Larraineko elizan?

Balin bada bat bera, harek erranen du: *Haritxabalet etzen aphez; arnegatu bat bai zirik etzen izaten ahal; elizaa ostatu baten bardin etsekiten zian eta ordena zankhopetan ezarten.*

Haritxabalet aphez fede handikua zen eta eliza gizon ederra eta seriusa.

Ez du sekula elizan khantatu prefazio hori. Khantatzen zian elizatik kanpo, adiskide untsa ezagutu zunbaitekin zelarik. Bena adiskide untsa ezagutietarik behar zien izan. Beste nur nahik egiatako harturen zutian. Haritxabaleten libertitzeko, jiten zeitzon bezala, burrustan emaiten zutian elhe auher, erri gozo egin-eraztekuak.

Haritxabaleten laketen Larrainen. Eta haatik Santa Grazia maitiagot zian. Ardura juaiten zen, Lexartsun gainti D'Esquerren ikhustera. D'Esquer ulhunto zen aspaldian. Ikhusten zian nula zoatzan Frantziako gora beherak; herritik ihesi juan behar ukhenen zialako lotsan bizi zen. Haritxabaleten khentzen zeron ahalaz lotsa hura. Haritxabaleten gazte zen; gaztia ez du geruak izitzen. Ez jakin D'Esquerrek etzian bere barneko mina zeren lege berriari jarri zen. D'Esquerrek eta Haritxabaleten besterik ez ahal zen hanbat zin egin zienik eskualde huntan.

Elizaren zerratzia jin zen. Aphez zin eginak eta bestiak, oro bardin ezari zutien. Etzeren haizu, ez agerian ez gordeka, erlijioneko eginbiden bethatzia.

Hanix haatik, biziaren galtzeko bidetan, bazabiltzan gaiak haur bat-heiatzen, ezkuntze benedikatzan eta Elizako helturen erier emaiten.

Deusek etzian khordokatu Haritxabaleten bere fede azkarretik, bena ez beitzian zertarik bizi, sarthu zen mandozain, armadako bizigarri kharreiazale.

Sotena utzi behar ukhen zian.

Mandozain lagunetan hanix baziren erlijioniaz erri egin nahi zienik. Haritxabaleten erraiten zeren: «Orhit zitie Jinkua gain hartan dela eta lekhu orotan; hura dela gure nausia; ikhusten dutiela gure ibilbide eta solasak oro».

Gutizbestek hartzen zien Haritxabaleten ertzeko bestiak beno haboroxe den bati zor den errespetia.

Haritxabaleten orori elhe huna emaiten zian bethi. Bena gerthatzen bazen ezin eden bat, nausa eta gaxtokeriak gaintika zutiana, Haritxabalet



jauzten zen ozketiketa lagun hortz gaxtoko hari, lepho zakutik har eta emaiten zeron ilhasaldi bat.

Egun batez uhuin bat jelkhi zeron Haritxabaleti bidiala:

—Bizia edo mursa!

—Ez bata ez bestia.

Haritxabaleten etzeron utzi uhuinari armaren hartzeko denboraa: makila ukhaldu batez hautse zeron ukharaia. Gero ezari zian mandon gainen eta eraman zian minaren herstecko lekhiala. Etzian utzi juaitera ontsa sendatu artino. Ordian eman zeron libertatia erraiten zerolarik:

—Abil eta bizitzek khanbiadi!

Ihurk etzian jakin zer bidetako gizona zen.

Haritxabaleten etzuekian mandozain bezala mulde hun handirik. Lagun zunbaitek, egun batez, erri egin zeroien zaldien kargatzen ikhusi zielarik.

—Nahi duzie jokhatu zerbait enekin zuinek lehen ezar mando baten bizkarrarian hirur kintale?, erran zeron Haritxabaleten.

Bat jeiki zen:

—Bai eta bail, egunko bien bazkaria.

Lothu ziren lanari, edo, hobeki erraitera, mandozainak begi ukhaldu batez behexi zutian bi zahagi ardu: zahagietarik bata jadanik mandon gainen zien; bestia laster hari uztarturik izateko bidian zen.

Ordian Haritxabalet jauzi batez igain zen mandon gaina eta gozo gozuan erran zeron bestiarri:

—Irabazi duta?

Mandozaina, egonik ixilik aphur bat, ez jakinian zuin gainti har, gaitziturik, khexian sartzeko halako errakia batean, mintzatu zen eta erran zian:

—Bai, partida irabazi duzu: ukhen diokezu hirur kintale phezu.

Haritxabaleten phakatzean bazkaria. Hanitxek bazakien Haritxabalet aphez zela. Bestalde, lotsarik gabe, berak hori erraiten zian goraki.

Soldado aitzindari batek uste ukhen zian behin buria aphaleraziren zerola. Erran zeron erkhaizta gaxto bat ezpainetan:

—Mandozain sarthu aitzinian, zer zen zure ofiziuua?

Demendren ukhorik gabe, Haritxabaleten ihardetsi zeron:

—Aphez nintzan. Egun aphez niz eta, hil artino, izanen niz Melchisedech-en legiaren arabera aphez.

Ofizierak ezagutu zian Haritxabalet etzela, ordunko denbora gaitzen gatik, lotsak gorderik egon nahi zienetarik. Haren hain garbiki mintzatzia eman zeron estimu handi bat mandozain aphezaren.

Erreboluzione handiko gizon thorpenak erori ziren haatik. Frantzia utzulixe zen bakialat. Elizak zabaltu zitien.

Berria agertu bezain sarri Haritxabaleten utzi zian mandozainua eta galthegin zian Elizaren zerbutxian berriz sartzia.

Bigerren aldikotz Santa Grazirat bikari igorri zien.

Han egonen da bere denbora orotan bikari D'Esquer erretera hil artino eta D'Esquer-en ondotik 27 urthez.

Zunbat nahi Santa Grazia bortu zokho den, zunbat nahi denbora haietan hanko bidiak gaitz ziren, kanpotiarrak juaiten ziren saldoka herri hartarat, haboruak debozionez, bena hanitx Haritxabalet jaun aphez entzunaren adiskide bezala, edo harekin ezagutzen egitia gatik.

Haritxabaleten batzarri ederra zian mundu ororen. Adiskider gaihaje handi egiten zian eta ikhusliarren etzeko ezinago largo zen.

Bethi erranik izan da, Haritxabaleten botz ederraren entzulia gatik, herriz kanpoko hanitx juaiten zirela igantez Santa Grazirat. Hortako aste-gunez juaitia bardin zatekian; Haritxabaleten khantatzen zutian Prefaziua eta Paterra, besta, igante ala astegun, bere botz nasai eta ezitia erabiliz bethi unguru eta hedadura berian.

Aldi batez nurbaitek laidorioz hantzen zian Haritxabalet bere botzaren gainen.

«Behar deizut kuntatu zer gertatu zaitan orai berri, erran zeron aphezak. Ari nintzan pheredikiaren emaiten. Ikhusi nian eliza ezkaratzeko xokho batetan Behigorkhuko etxekandere xaharra ari zela nigar eta nigar. Ebanjeliotik mintzo nintzan eta ez nian deus ere lazzaririk erraiten. Hartu nian burian behar niala jakin zerk emazte gaxo hari nigar zipa hurak oro jauz-erazten zeitzen.

Mezaurhentu bezain sarri giltzaina kargatu nian Behigorkhuko etxekandere xaharrari erran zion ikhusi eta mintzatu behar niala; elizatik jelkhitian jin zedin aphez etxiala. Emaztettua jin zen. Zerbait har-erazi neron jateko eta edateko. Ez nintzan berehala atrebitu emaztiari galthegitera zerk hala nigarretan ezari zian eta eduki meza denboran. Ez neron berehala aithor-erazi ahal ukhen egia. Bena ezaguturik etziala hoberik, erran zeitan:

—Jauna, jakinen duzu hala nahi duzunaz gainen, bena othoi ez duzu behar khexatu. Baginizun asto bat hunik. Zalthubian larrutu zikuzu. Egun, zure botzaren entzutiari, uduri zitadazun astuaren orrua entzuten niala. Eta asto gaxuaz orhiturik nigarrez arizan nuzu.»

Haritxabaleten maite zutian lagun gozuak bena etzen laket laidoria egilekin:



—Ala txoria!, erraiten zian, holako berakatuxek uste die orano bes-
tiak berakatuxago direla.

Eriak ere, ahal zien bezala, juaiten ziren Santa Graziarat. Hertsatzen
ziren hanko patrona saintari, ararteko hartuz, sinheste handi batekin,
Haritxabalet jaun erretora. Haritxabaletzek emaiten zutian ebanjeliuak
erien osagarriaren eskatzeko.

Bazutian bi ebanjelio eli: Elizako luburietakuak eta Zaragozakuak.

Denbora haietan bazen behargabedun hanitx. Haietarik zunbaiten
ixil eta ekhuru egon-eraztia neke zen. Sobera gaizten zirelarik,
Haritxabaletzek luburia zerra eta, bilho zamarretik hartzen zutian eta iha-
rrausten zarpa bezala.

Eta behargabedunak axuria bezain ezti jarten ziren bertan.
Behargabedun gaitzer emaiten zutian ilhas aldi hurak Haritxabaletzek dei-
tzen zutian Zaragozako ebanjeliuak.

Haritxabalet, beste aphezak oro bezala arauz, mahanka largo zen
bekhatore txipien ertzeko.

Emaztetto batek kofesiuari aitortu zeron zunbait phorru ebatsi
zutiala. Haritxabaletzek etzian hanbat gaizkitu emaztia. Erran zeron:

—Haurra, hori bekhatu txipia dun. Ez din laxuki holako uhuintza
txar baten aiphatziak balio.

—Bena, Jauna, ihardetsi zeron emaztiak, zure baratzian ebatsi ditit
phorru hurak.

Haritxabalet ixil egon zen aphur bat. Gero igorri zian penitenta
erranez:

—Orhit hadi arrastan badela phorru eta phorru...

Ekharriren dugia heben zer utzulia Haritxabaletzek jauki zian bost
kontrebanda haxeren salbatzeko?

Bost haxero, bost kontrebandist sarthu ziren gaiaz, kafez kargaturik
Urdaiten behera. Eraintzeko portillotik igaran nahi izan ziren, bena gar-
dak han gainti zirela jakinik, behar ukhen zien Urdaiterat buruz utzuli.
Bidia luzatzen zien hanitx, ezi Olorurako alderat abiatuak ziren, bena zer
egin? Baratu ziren Drundan, han egunaren igaraiteko.

Bena gardek jakin zien kontrebandaa sarthu Athororat eta han zela
nunbait gorderik. Bost kafe haxiain Drundako sabaian ziren eta Drunda
erreuszen beitzakian herriko karabineruak oro Athoron zabiltzala etxe
etze, bordaz borda, zokhoz zokho.

Juan zen Haritxabalet khuntatzera zer gertatzen zen eta hari errai-
tera galdia zela kontrebandaa haren etxen gardek edireiten bazien.

Haritxabaletzek berehala hatzeman zian Drundaren galbidetik idoki-
teko utzulia:

—Abil, erran zeron, eta orotan heda-eraz ezak etxekandere xaharra
hil zaizielako berria eta haren ehortzeta bihar izanen delakua.

Drundak egin zian Haritxabaletzek manatia.

Bihamunian aizo eta askaziak bildu Drundala. Athoro oso osua han
zen.

Bost haxiak ezari zutien karkanuetan; hil oihalaz untsa tapatu zutien.
Gero, Drunda buru burian, khurutxe bat eta ezko khanderak eskietan,
haren ondotik Athorotar kontrebandistak, kunderak erhietarik txilintxan,
hila lau gizonek bizkarrian eta gibeletik emazte tramada bat, kapotxinaz
gorderik, zunbait nigarrez, bestiak othoitzian, horra hila eta ehortzetali-
arrak eraisten Athoro gainetik herroka luze batetan.

Erranik izan da Haritxabalet ere giltzain, beretter eta khantatiarekin,
juan zela Drundala hilaren txerka eta bidian khantatu ziala *Miserere mei...*

Hori ehortzetari itxura habororen emaiteko ezaririk izan den emen-
dio bat da. Ez da egia. Haritxabalet aphez zen, osoki aphez; deuseren
gatik etzian elizako zeremonia baten errespetia galduren.

Bestalde Santa Grazian, sekulaz geroz etxauetako hilak ekhartzen
dutiela aphezik gabe karrikala. Karrikala juaiten da apheza ehortzetako
ofiziuaren hastera.

Eiheramendiko borthan ziren gardak kafe haxiak hil-karkanuetan
han igaran zirelarik.

Ordunko kargulantak, nahiz Erreboluzioniaren aranak ezagun ziren,
etziren oraikuak bezain hotz erlijioaren ertzeko; eta hil batek emaiten
beitu nuri nahi ere bortxazko gogueta ulhun eta latz bat, gardak, herro-
kan, belhariko jarri ziren kontrebanda igaran zelarik.

Espilagan Athorotar ehortzetaliarrak ekhuratu ziren. Bost gizonek
hartu zutien kafe haxiak eta, denborarik galdu gabe, lothu ziren bidiari.
Oren bat eta erdi etziren eman Garateko lephuala heltzeko. Garatialaz
geroz etzian Santa Graziako garden beldurrik.

Biarnes gardarik ere etzen gertatu Goillertze ungunetan.

Zokhoz zokho, haxeruak eraitsi ziren ezagutzen zutien bidexkez eta
sarthu ziren Senpeko oihanian.

Bethi izan dira bekhatu eta salhazaliak. Gardak ari zirelarik Athoron
Garaiko etxolaren ikhertzen, berria heltu zen haien beharrietara bost kon-
trebandist igaran ziela Zalthondoko ibarra gora. Gardek jakin zien ere
egun hartan etzela izan ehortzetarik Santa Grazian.



—Haritxabaleten kolpial, erran zian garden aitzindariak, herenegun Athoron sarthu kontrebandaa Olorurako bidian da. Haren aitzinian belharikatu gira; laster egin dezagun orai haren ondotik.

Abiatu ziren bena berantegi. Etziren jua elizatik gorago.

Beren errabian mehatxuz hasi ziren Haritxabaleten kontre. Haritxabalet khanberako leihotik so eta beha zagon garder. Gardetarik batek hartu zian bere arma ilabur eta su egiteko bezala jarri zen Haritxabaleten buruz.

Haritxabaleten erran zeron:

—Ala txoria!, eia emak!; ez nezala haatik huts egin; bestela hire larria saltzeko izanen duk.

Hain sarri hartu zian eskietara bi kolpetako suharrizko arma eta, erriz zaguelarik, hura erakatsi zeron gardari.

Gardak hartan jua ziren.

Hantik bertansko, garden kapitaina, ardura egiten zian bezala, jua zen Haritxabaletekin bazkaitera. Adiskide handi ziren.

Kapitainak nahi ukhen zian erran zerbaiz gaizki aphezari:

—Zer, zu kontrabandisten alte? Hori da egin duzun lana!

—Xol, ihardetsi zeron Haritxabaleten, ez othoi iratzar-eraz lo dagon erbia. Nahi duzia entzun zerbaiz kuxeluz? Zunbaiten ustekia da zuk zihauk batzutan lagutzen dutuzula kontrebandistak.

Kapitaina hain zen khexian jarri nun nahi izan beitzen abiatu adiorik erran gabe ere.

Bena Haritxabaleten bazakian balakatzen eta biltzen. Kapitaina ezitu zen. Egia da bazkaiteko thenoria zela ere.

Espainul arduak ezari zian kapitaina lurreko izate gozo gozo batetan.

Ordian etzutian hain gaizki hartzen kontrebandisten utzuliak.

Eiherazain bat, oro irin, bathu zian egun batez, elge zolan, zorro gaitz bat suinian:

—Zer dugu hori?

—Ez baduzu ezagutzen zer den hau?

—Nurentako da?

—Jaun erretoresaren.

—Jaun erretoresak ere jan behar du arren?

—Bai eta edan ere.

—Errozu goraintzi nik exi.

—Untsa duzu; bena zu nur zira?

—Garden kapitaina.

—Pharka ene muldegaizkeria, ez nakizun nur zinen.

—Zuatza, zuatza bakian!

—Bai, arren, bai!

Zortzi egun zutian eiherazainaren ikhusiak eta egun hartan zian kapitainak jakin eiherazaina kontrebandist bat zela, espainul arduz kargaturik. Hain xuxen ardu harek zian ezari kapitainaren papua ephel ephela.

Abiatzeko thenoria jin zelarik, Haritxabaleten erran zeron kapitainari:

—Badutu lehen Eretako erretoresaren jin-erazirik lau ofizioko luburu ttipi. Ez dakit nula hel-arazi behar deitzotan. Etzuntuzke eramaiten ahal?

—Bai; eta aisa!, ihardetsi zeron kapitainak. Luburusko horien phezia ez da handi izaten ahal. Gaur berian, bide hunez, eskutik eskiala emanen deitzot gure erretoresari.

Ez dut orano erran garden kapitaina Eretan egoiten zela.

Kapitainak eraman zutian, ez ofizioko luburiak, bena bai berrogoi-eta-hamar zigarro espainul, untsa eijerki emanik paper azkar batetan eta luburien heineko muldian.

Gai berian kapitainak eraman zeitzen zigarruak Eretako erretoresari. Erretoresak egon-erazi zian kapitaina berarekin aihaitan. Aihal onduan eskentu zeron zigarro bat.

—Nurat nahi juanik beti kontrebanda, egin zian kapitainak. Zigarrua nun da eta ene ixilik Espainatik jinik da.

—Ez da zure ixilik jinik, ihardetsi zeron erretoresak. Kontrebandako zigarrua bada, kontrebandista zu zira. Santa Graziako erretoresak igorri deizkit berrogoi-eta-hamar zigarro egun zurekin.

Kapitainak buria bi eskien artian harturik erran zian:

—O, Haritxabalet!

Nurk ez du entzun aipatzen *tourne-broche* baten gainen Haritxabaleten erran zian elhe unguruzkua? Haritxabaleten elhe hura erran zialarik Jaun Aphezakupiari, ez berak ez Jaun Aphezakupiak etzien goguan igaran halako ahapaldi xoil, gaxtokeria gabekuak ehun urthe irainen ziala kalomniaren muldian.

Huna bi hitzez zer igaran zen eta zertarik hasi zen konder tzar luzaz mundiak erabili diana.

Jaun Aphezukupia Santa Grazian zen konfirmazioniaren emaitera juanik. Ofiziuak urhenturik, mundia kalostrapetan eta ilherri ungunetan zagon. Bazen jentez Sentak eden ahala. Jaun Aphezukupia, Haritxabalet eta beste aphezak erretores etxeko borthan zauden.



—Zer populazione ederra! erran zian Jaun Apezkupiak. Oro laboriak dira?

Haritxabaleték ihardetsi zeron:

—Haboruak laborari; hanitx artzain; saldo bat jualtero; oro agudo; oro *tourne-broch*-az aberats.

Azken hitz horik Haritxabaleték erran zutian botza aphaltuxez eta Jaun Apezkupiaren beharrialak igorritz.

Tourne-broche izen horrek Jaun Apezkupiaren eman-erazi zeron begi ukhaldia suialako gaintiala: ikhusi zian suphazterrian putiko bat, gorri gorria, ari zela gerren handi batetan zikiro laurden baten erra-erazten. Utzuli zen erretorari buruz eta erkhaizta ezti batekin erran zeron:

—Jinkuak benedikatzen dutu familia handiak.

Hori da egia oso osua.

Haritxabaleték Jaun Apezkupiari enthelega-erazteko Santa Graziako etxetan bazela haurrez gaintika, hartu bazian uduriz arruntxegi zen unguiria, ogen ukhen ziala nahi dugu. Haritxabaleten berjitia ezagutzen zianak utzi zian mintza mulde hura igaraitera arrankurarik egin gabe. Jaun Apezkupiak berak etzian batere gaizki ediren.

Haritxabaleten gelharia, Mañaña zaharxetan hasirik zen. Jaun erretorak hartu zian Mañañaren suineskail, Graxi bere iloba, Haritxabaletako alhaba.

Graxi gazte zen orano. Ezkunt adinala haatik heltuxurik.

Denbora hartan Santa Grazian elizako giltzaina Berriets zen. Berrietsian bazen primia, Dominixe. Dominixe etzen izan beretter, bena elizan, gazte gaztetik, khantaderianzabilan. Botz hun bat zian, ez bethe bethe bena odcietara gora.

Erran dugu Dominixe etzela izan beretter. Aitak nahi zukian meza zerbutxari sar-erazi, bena huna zerentako muthikuak utzi zian kargu hartara heltzeko abiua.

Egun batez Berriets ari zen lur utzultzen. Dominixek behiak deitzen zutian. Aitak nahi ukhen zeron erakatsi nula elizan erabiltzen zien intsentsatzekua. Denbora haietan eta geroz ere, beretterrek etxekiten zien intsentsatzekua khatiaren gain gainetik eta intsentsatzen zien besua luzatuz, eliza bobedala huilan hel-erazten zielarik su untzia.

Oraiko intsentsatze muldia hanitxex xotilago da.

Berrietsék nahi zian arren semiari intsentsatzen erakatsi. Hartu zian pegarra eta ezari zeron builhur bat. Horra intsentsatzekua. Bera jarri zen aphezaren lekhotan. Dominixek behar zian intsentsatu. Putikua lothu zen lanari besogainka. Hain sarri builhurxarra ethen zen eta pegarrak jo zian

burian Berriets eta urthiki. Egun hartarik aitzina Berrietsék etzian deuse-tan nahi ukhen entzun semiaren beretter egiterik.

Erran duguna, Dominixe elizako khantari zen eta holaz bazian zerbait zuzen aphez etxian zumbait sar-jelkhiren egiteko. Ardura gerthatzen dena gerthatu zen ordian ere: ezkuntzeko adinala diren bigek algar ikhusi eta bieki algar untsa hartu.

Haritxabaletako nausiak hitzemanik zian alhaba besteri.

Osaba aphezak nabaritu zialarik Graxik Dominixeri egiten zian sua, haro zerbait eraiki zian; libertatiak ilobari hersatu zeitzen eta bortha erakatsi zeron Dominixeri. Horik oro auherretan izan ziren. Gai batez Arbeleneko eta Santa Eskerreko baratzen artian zen muhuiluondo gaitz bati Haritxabaleték thiratu zian tiro bat, uste zialakuan muhuilu ondo hura Dominixe Berriets zela. Bazakian zer ari zen bena etzakian haatik Dominixe muhuilu ondua beno huilanago ziala: leiho eretzian zen, etxe murriari josirik, hatsaren hartzeko herotsik ere egin gabe. Behin beno haborotan entzun derogu Dominixeri:

—Ala jin posibilia! uste nia gai hartan zela ene mundutik juaitia!

Graxi sarthu zen Berrietsian etxekandere. Bena zumbat nahi Berrietsia bizigu huna zen, denbora luze gabe etxaltiak utzuli gainti egin zian.

Nuren ogena izan zen? Marimenddi Berrietséko alhabak erraiten zian kotaluxenurguiluak ezari ziala etxaltia lurrian. Kotalux, Santa Graztarrek deitzen zien Graxi. Izen garaitiko hori eman zeroien arauz bestiak beno philda hobexiaguan zabilalakotz.

Dominixek utzi zian laborantxaa eta lothu zen jualteroguari. Graxiren dothia ez baitzen galdu sos harekin. Dominixek eta Graxik erosi zien karrikan Puntenia.

Ukhen zutian haurra; eraiki zutien haurtxoak ere; bizi izan ziren, ez bethi bakian, bata ez bestia ez beitziren berjitez maithagarri, bena beharrek eskerniaturik izan gabe, 80ra urthetara huilan.

Haritxabalet ihizlari handi zen. Biga bost orkatz eta basahuntz eraitzi dutu bortutik. Hura bezalako thirari guti zela ziroien. Bere leihoik, Maidaleneko khurutxiala balaz igaraiten zian makila bat aldikal.

Hori emendatuxerik izan daiteke. Hunki zutian makila behin edo behin. Aldi oroz makilaren heineko xuri batean zilatzia tregua hartan, nekeztto dela uduri du. Bortol Kurutxagako zenak, Haritxabaleten ihizlari lagunetarik beitzen, baietz zian bethi.

Ihizekan egiten zutian lasterrek eta han hartzen zutian akhidura eta izertaldi handiek goizik ezintu zien Haritxabalet. Hiruretan-hogei urthe-



takoz errematismoa gaxto batek eskazatu zian. Nekez baizik etzaitekian haboro zotuka; txankarikgabe etziroki egin urhatsik. Oinaze handirik etzian haatik. Barnia untsa zian eta bethiko irrigura gozua jarriki zeron.

Ardura aphez ikusliarrak jiten zeitson Haritxabaleti. Ajia apheza, atharraztarra, Ligiko erretora hoberenatarik zian. Ajia hunkhoi handi umen zen. Mehe egunez etzen Santa Graziarat agertzen. Hura jiten zenian Mañañak behar zian oilua thipinan ezari. Maidalenako khurutxetik aldi oroz Ajiak oiuhu egiten zian Santa Eskernialat buruz:

—Mañaaña!

Hoili deia salda gaaaina?

Oihu hori entzun bezain sarri Haritxabaletzek erraiten zion gelhariari:

—Zarthagina zaharra hor dinagu.

Zarthagina zaharra etzen sekula borthazale bera juaiten. Santa Graziako bide luze eta gaitzen igariteko hobe zen hanitxez zunbait lagun algarrekin izan zitian. Aldi oroz Ajia ekhurutzen zen Aphez-Jauzkagian. Nahi zukian jakin zertarik izen hori emanik izan zen leku hari.

—Ala txoria! erraiten zeron Haritxabaletzek, nihauren hunetan ere behar diat hola mintzatu, bena, othoi, ez dezaziela sobera hurrupa nafar-tto huntarik, ez dezazien hor nunbait egin Aphez-Jauzkagia berri bat.

Beren mandoskuetan xuxen haatik Haritxabaleten ikhusliar aphezak igaraiten ziren gora eta behera.

Elguebarne zen denbora hartan Santa Grazian elizako khantari eta herriko izkiribaño. Bazian jakitate aphur bat. Latia ere bazakian bere ustez. Aphez gai izanik zen. Bazakian seminarioko zerbait berri. Bena soldado behar ukhen zian juan, eta armadatik libratu zelarik, etzen haboro utzuli eskolalat. Ez aphezteko, ez dakigu zerentako etzen jarraiki soldado zerbutxiari, ezi ofizier zen, eta bazian aski eskola aitzinatzeke.

Etxegoyhen Aiharbiarra eta Elguebarne Santa Graztarra, bi aphez geiak algarrekin ibili ziren soldado; biak aitzindari ziren eta konpaina berian: Etxegoyhen kapitain eta Elguebarne lotinent.

Etxegoyhenek ere utzi zutian armak, bena berriz seminariuan sartzeke. Apheztu zen eta Maulen hil da arxipretra.

Etxegoyhen juiaten zelarik Haritxabaleten ikhustera, Elguebarne bazkaitan zen haiekin eta bi aitzindari ohiek behar zutien ordian soldado denborako gora beherak elhez arraberrikatu.

Beste hanitxe bezala Elguebarnek maite zian mahatsaren hura. Ageri zen nuiz zian papua epheltzen hasirik.

Ordian gizagaizua orhitzen zen lehenago hartu letzinez eta latiala erortzen zen.

Xuxen zabilano Haritxabaletzek erriz tzur tzur, uzten zian juaitera, bena behaztopatzen zelarik erraiten zeron:

—Hori Espainako ermithainaren latia da.

Zer zen Espainako ermithaina?

Erran dugu Etxegoyhen eta Elguebarne soldado izan zirela algarrekin. Espainan ziren Victoriako hirian. Egun batez haien konpaina igorri zien ikhuska mendiska baten ungunetara. Naba xokhota batetan ikhusi zien ermitha edo elixa bat. Huilantu ziren hara eta han ediren zien aphez bat. Espainul amiñi bat beitzakien, elhe egin zien aphezarekin. Erran zeroien aphez geiak zirela bena behar ukhen ziela seminariua utzi soldado juaiteko.

Aphezak aphezari hunkijin beitero, nun nahi bathurik eta zuin nahi nazonetako izanik, ermithain edo elixa-zainak arristiri askari hun bat adela erazi zian eta frantzes bi ofizierak untsa trataturik izan ziren. Jin zen Elguebarnerentako latiz mintzatzeko thenoria. Gazte danik bazian geruan azkarki ukhen zian erraitekuaren hastapena.

Gizagaxo ermithainak behar ukhen zian aithortu etzela latian trebe, etziala ikhasi latirik elizako othoitzten enthelegatzeko doia baizik. Zer burian hartu zien eta hartu azkarki Etxegoyhenek eta Elguebarnek? Espainako aphezak etzakiela latirik.

Victorian, hiriko aphez etxiari aitzinez aitzin zien bi ofizierek beren egongia. Ikhusten zien egun oroz bazkal onduan, galerian, erretora hara hunaka.

Victorian, karriketari, bi gaintitarik eta goratarzun berian, etxek orok badutic galeriak. Etxegoyhenek eta Elguebarnek hitzartu zien egun berian behar ziela galeriatik galeriala, hiriko aphez-nausiarekin elhe egin. Elguebarne zatekian haste, harek beitzian boronte gaitza. Etxegoyhenek joren zian aitzina, Elguebarne beno hanitxe azkarrago beitzen latian.

Victoriako erretora etzen haatik erran delako elixazainaren herroketarik: latian etzen herratzen eta teolojian azkar zen. Elguebarnek bertan ixiltu behar ukhen zian. Etxegoyhen juan zen aski hurrun, bena ezagutzen zian etziala haboro biderik. Victoriako erretorak eskolier berri baten heiniala ezaririk zian; halako galto batzu egiten zeitson eta etzakian nula ihardets.

Elguebarne ez beitzen burments eta ikusten beitzian kapitaina zer athekan zen, oihuz hasi zen barnetik:

—Etxegoyhen! haigu bazkaitara, hire haiduru gutuk...



Etzegoyhenek ordian, bizkarra konkortuz, gurrak egin zeitzonez espainul aphezari erranez arragret ziala bena lagunek bazkaitara deitzen ziela.

Bi ofizier latinistek erran zien algarri:

—Frantzian eta Espainan, jakitanta jakitanta eta deusere ez dakiana ahal den bezalako.

Haritxabaletak entzun zian aiphatzen gerthakari hori hanitx aldiz. Hartakoz erraiten zeron Elguebarneri, bide emaiten zerolarik:

—Bego ermithainaren latia!

Elguebarneri etzeron hanbat laket elhe horien entzulia Goihenetx eta Ardatx khantari laguneren aitzinian. Ikhusten zian bi beretter haiek halako so bat eginen ziela algarri, erran nahi ukhen balie bezala:

—Bere handiagua orenen gatik, ez duk hori ere uduri-erazi nahi lukian bezain hurrin latian heltzen.

Elguebarne, Goihenetx eta Ardatx, hiruak elizako khantari lehen herrokakua ziren Elguebarne buru, bestiak haren peko.

Elguebarnek botz artekotto bat zian, aski mulde oneko; Goihenetxek botza idor zian; eta Ardatxek belatxa bezain arhin. Hirurak untsa trebaturik ziren *Plaint-chant*-ian. Khantu notak eta haien gora eta beherako jauziak untsa ezagutzen zuten. Saihetseko khantari zunbaitek huts egiten zielarik, bazakien, so batez, haien gibel egon-erazten. Filipe Luro, Haltzepo, Dominixe Berriets, Anbroxi Elixalt eta beste zunbait heinian zauden jaun handi haien onduan.

Igante batez Pettarreko gizon bat debozionian jinik zena, bere herrian elizako khantari zatekiana arauz, huilantu zen khantaderiala. Elguebarnek gogoz gainti bena halarik ere, eman zian gizon arrotzari, *Introit* eta besten hasteko uhuria.

Pettarrakbotz ederra zian eta haren khantatzeko muldiak odola bekhatzez phizturik ezari zutian Elguebarne, Goihenetx eta Ardatx.

Bena horra nun gizagaxo Pettarrak ofertoruan nota bat faltsu emaiten dian osoki. Hain sarri Elguebarnek, mundu orok entzuteko heinian, egiten dero saihetsetik: «Eskolalat! Eskolalat!». Goihenetx eta Ardatx hasi ziren kheinuz eta erriz, bi haur bezala.

Pettarra, ahalkez gorriturik, jelkhi zen berehala khantaderatik eta hurruntuxe zen beren buruez hainbeste harturik ziren gizon haietarik.

Haritxabaletak erran zeien, egun hartan bere elizako kantariak bi hitz zorrotzik, erran zeien *Plaint-chant*-eko oso zirela, bena gizatarzunez zinez eskas. Elguebarnek behar ukhen zian buria aphaltu; aleta lephua gogor zian eta elhia bizkor berjitez.

Eramuz, Santa Grazian, Pasionia khantatzen zien mulderik ederrenian.

Herri osua juaiten zen egun hartan elizalat Pasioniaren khantatzen entzulia gatik.

Elguebarne althariala eraisten zen khantaderetik. Goihenetxek emaiten zian goraa. Egund hartan Haritxabaletak uzten zutian xaramelak eta ezarten zian bere botz nasaia arrabitaren sonia bezain ezti.

Bi oren behar ziren Pasioniaren khantatzeko eta mezazaliak etziren debeiatzen.

Dominixe Berriets aspaldian Pasioniaren khantatzeko uhuriala heltu nahirik zen. Goihenetxek etzeron orano uzten aldirik.

—Nik uzten dudanian hik emanen duk gora.

Jin zen Erramu. Elizaa jentez gaintika betherik zen. Elguebarnek hasi zian Pasionia. Goihenetx, lunetak argiturik, haien sudurren gaina biltzen ari zen. Dominixe Berriets Goihenetxen gibelian zagon. Elguebarne gibelian zelarik hitz horietara: *Dicebant autem*, Dominixek, Goihenetxi ahuaeren zabaltzeko denboraa utzi gabe, eliza bobedaa iharrauziz, iharde-tsi zian: *Non in die festo, ne forte tumultus fieret in populo*.

Goihenetx ahalketurik gibeltu zen eta Dominixek khantatu zian lehen aldikoz Pasioneko goraa.

Ordian hasirik, denbora luzaz eduki zian pasioneko goraren khantatzeko aldia.

Goihenetx etzen nahi izan arrankuratu Haritxabaletari Dominixek egin zeron lan tzarraz, beitzakian jaun erretora bere ilobaren senarraren kuntre etzela jarriren.

Goihenetx hartan erori zen; utzi zian elizan khantatzia. Izan zen haatik haren ordari khantaderian sarthu zena. Primu egin zian bere iloba Anttoni Burguburu. Anttonik bazian botz bethe hun bat. Ikhasi zian ere *Plaint-chant*-a aski untsa. Osabaren luburiak hartu zutian eta jarraiki da bere denbora orotan elizan khantatziari. Elguebarne etzuan azkartuz. Constantin errejent gaztiak hartu zian haren lekhia. Utzi zeron, jua ahal zeno, lehen urhatsa khantaderian eta merako lanetan. Azkentsialat Elguebarnek etzian luma etzekiten ahal nun etzian aitzinetik botila bat ardu edaten. Gaiaren hun igaraiteko hartzen zian arrats oroz, ohialat sartu onduan godalet handi baten bethe aigardent.

Ardatx ere bere bi lagunak bezala, ixiltu zen. Utzi zialarik khantore egitia, muldiak erran zian:

—Adio Ardatx!

Ari izan zen haatik orano askitto luzaz, negian, gaiatzeko eskolaa egiten lehen kominiankarier, katiximaren erakasteko. Etzian eskolaa kario



pakha-erazten. Letzioniaren hartzera jiten zenak, behar zian ekharri aldikal, su egiteko eskail bat. Egurra gabe jiten zenaren etzen bortha zabalzen. Borthan joiliari Ardatxek egiten zian: «Eia leña?». Bazian halako ahalke bat uskaraz erraiteko: «Badeia egurra?».

Aiphaturen dugu igaraitian Haritxabaleten adiskide bat, Ganosse medezia.

Ganosse Tarbeko zen. Jin zen gazte gaztia, eskolak urhentu bezain sarri Eretarat egoitera. Eretan zagon neskato, laborari etxe batetan, Santa Grazi Guillemeneko neskabila eder bat. Ganossek ezagutiak egin zutian neskabila harekin. Hain zeron goguan sarthu non emaztetako hartu beitzian. Eta hantik bertan jin zen egoitera Santa Graziarat. Han bizi izan da luzez eta han hil 57 urthetan, 1832an.

Haritxabaletak khumitatzen zian Ganosse ardura bazkaitara. Medezi bezain ere bazian zunbait aldiz haren beharra. Adin azkarrian errematismek hartu zien, bestalde, ihurk hanbat etzakialarik, bazian estomak xiluan ethendura gaitz bat.

Ganossek erraiten zian bere uskararik hobenian:

—Jaun erretora azkar dela hartza bezala, bena badela doloria handi, eta gero txoria? Txoria badiat phantzoilian habia. Lana ez, phausia bai.

Haritxabaletak bazian Ganosse beitan sineste osua. Ardura ziuan:

—Nula holako gizon jakintsuna izan da hain kopetx arhin, gabezia gorrian sartzeko, eta hain ahul bizi orotan, han ithorik egoiteko?

Ganossek egin ahal zukian ezkontze eder bat, bena zunbat nahi emaztia deus gabe zen, buru huneko jelkhi balitz, ezin biziak etzian eskerniatuko jaun hura, ezi lan hanitx bazian herrian eta hanitxez haboro herri aizueta, ardura deitzen zien Biarnorat. Denbora haietako irabazten zian sos ederra, bena haren etxen ari ziren jina juan.

Haur saldo bat ere Ganossek ukhen zian. Haurretarik bat beizik etzen jelkhi zerbait balio zianik. Bizar egile, basa barber, ostalari eta sonu joile hura bizi izan zen Eretan. Zerbait huntarzun ere egin zian eta oro utzi aitaren gaintitik Tarban zutian askazier. Aurhidek etzian deusere ukhen, oro edale eta buruments zien ere. Zankhuak hun zutien haatik. Nuiz nahi bazuatzan huinez, Tarbako askazien ikhustera. Bazen haientako han bethi xokhorra. Kosiak anaia beno hobe ziren. Bada bide Santa Graziarik Tarbara.

Haritxabalet etzekiten zen zinez Ganosseri, bai eta haren familia errenbesari ere.

Aldi batez, Eretan zagon Ganosse semiari erran zeron:

—Foure, aisan zira, ez duzu haurrik. Laguntuxe behar zuntuzke aurhide gaxo horik.

Haritxabalet ixiltzera dua. Ez du haboro izkiribatzen ere. Constantin herriko errejentak egiten dero segretarigua. Harek behar deitzo leterak irakurri eta haien arrapostiak egin.

Elhia bekhantziari begithartia ulhuntutxe zaio. Segretariak zunbait aldiz, Haritxabaletari erri amini bat jauz-erazteko, galthatzen dero hau edo hura khunta dizon. Nekezto, bena Haritxabalet hasten da: *Egun batez laguntu nia Ganosse Harrigilala. Han bazia emazte bat eri gaitzki. Nabaritu zialarik medezia kanberan sartzen, eria basi zia oibuz: Jaun barbera egarri! —Eta ene haurra edan! —Bena jauna, lotsa nuzu! —Eta ene haurra, ez edan!*

Hortan Ganossek utzi zia eria.

Haritxabaleten azken erri elhetarik hau ere: *Ibarburuko suphazterrian nundia jarririk. Apa Maria zena xokhuan zia gona ixil ixila. Su murratik inkhatz bat bar-eta, phiztu nia pipaa. Emazte xabarra eni so zia gola xuxen xuxena. —Zer da Apa Maria? galthegin dioia. —Eta hi ere pipatzan duna gizona bezala? —Eta, ala txoria! eniza gizona? —Bai, bai, gizona, bena apbeza behintzan. Apa Maria Biarnorik jinde zen ezkontzaz Ibarburila.*

Haritxabalet zinez apaltzen ari zen. Halako khorpitz, halako indarra eroririk ziren orozbakoz. Laxague bikariak, lotsak harturik, galthegin zeron etzutianez nahi azken sakramentia errebitu:

—Nahi nundukek igorri, bena ez ditiat orano botak urintaturik bidaje handialako. Nihauk erranen deiat nuiz datekian thenoria, ihardetsi zeron.

Hantik laster haatik Haritxabaletak deitu zian Laxague khanberala:

—Orai behar diat untsa adelaturik jarri. Bertan dukek Jinkuaren aitziniala ene agertzia, eta nahi nuk izan Jundane Juhane lilia bezain xuri nausi handiaren besuetara juaiteko.

Haritxabalet hil zen 74 urthetan, 1834ian.